



PRENTSA OHARRA

ZIGOITIAK BENGOLARRAKO ERAIKINA ERABERRITZEKO LEHEN PAUSOA EMAN DU

-) **Zigoitiko Udalak 104.060 euro (BEZa barne) bideratu ditu eraikina birgaitzeko obrak zuzendu eta talde erredaktorea kontratatzeko balioko duen proiektuen lehiaketa abiarazteko.**
-) **Eraberritze lanei dagokienez, aldagelak handituko dira, igerilekuetako taberna zahaberrituko da, balioanitzeko bi areto eraikiko dira, irisgarritasuna hobetuko duten oztopo arkitektonikoak kenduko dira eta indarrean dagoen legedia beteko da energia alorrean.**

(Ondategi, 2019ko abenduak 4). Pasa den azaroaren 27an ospatutako Osoko Bilkuran, Zigoitiko Udalak pauso garrantzitsua eman zuen Bengolarrako eraikina eraberritzeko lanei dagokienez. Udalak eraikina birgaitzeko obrak zuzentzeko eta talde erredaktorea kontratatzeko balioko duen proiektuen lehiaketa martxan jartzeko deialdia onartu zuen. Lehiaketa publikoak 104.060 euroko (BEZa barne) aurrekontua du eta parte hartu nahi duten enpresek lau hilabeteko epea izango dute beraien eskaintzak aurkezteko, lehiaketa publikatu zen egunetik hasita (2019ko azaroaren 28an).

Bengolarrako eraikina kirol ekipamendu publiko gisa erabiltzen da eta udal igerilekuen zerbitzua eskaintzen da bertan. Eraikin zaharra da, 1950. urtekoa, eta gaur egun beharrezkoak diren zerbitzu publikoak eskaintzeko egokitzapen arazoak izateaz gain, irisgarritasun arazoak ere baditu, herritar guztientzako sarbidea erraztea ez delako posible.

“Ezinbestekotzat jotzen dugu eraikina birgaitzera eramango gaituen ibilbide hau ahalbait arinen hastea. Burutuko ditugun hobekuntzei esker, aldagelak handituko dira, igerilekuetako taberna zahaberrituko da, balioanitzeko bi areto eraikiko dira bakoitza 100 metro karratu ingurukoa, irisgarritasuna hobetuko duten oztopo arkitektonikoak kenduko dira eta indarrean dagoen legedia beteko dugu energia alorrean. Legealdi honetako proiekturik garrantzistuenetariko bat izango da” adierazi du Javier Gorbeña Zigoitiko alkateak.

Javier Gorbeñak gogorarazi duenez, kirol ekipamenduak berritzu eta instalazioen irisgarritasuna hobetzeaz gain, eraberritzearen ostean eraikinak erabilera desberdinak

www.zigoitia.eus

945 464 041 - Bengolarra kalea, 1. Ondategi



@ZigoitikoUdala



PRENTSA OHARRA

eskainiko ditu, horien artean, Zentro Soziokulturalera eramandako udal kirol ikastaroak bertan egin ahal izango dira. *“Gure helburua espazio berri bat eraikitzea da, jasangarriagoa, modernoagoa, irekiagoa eta irisgarriagoa guztiontzat”*, esan du alkateak.

Lehiaketaren faseak eta helburuak

Lehiaketaren helburua, Bengolarrako eraikina inguruarekin integratzeaz aparte, honen definizio kontzeptuala, arkitektonikoa eta programatikoa egitea da. Epaimahaia batek, beharrian funtzionalak, adierazgarriak, estetikoak, herri-inguruaren erlazioarekin lotutakoak eta aurrekontu baldintzak hobekien betetzen dituzten diseinuak aukeratuko ditu.

Ideien lehen fasean, hobekien baloratutako 5 proposamen hautatuko dira, irizpide kualitatiboen puntuazioari dagokionez %50eko muga gainditu beharko dutenak alegia. Proposamen hauek bigarren fase batera pasatuko dira, aurreproiektuen aurkezpen fasera. Bigarren fase honetan, irabazleari, proiektuaren idazketa esleituko zaio eta beste lau proposamenek, bakoitzak 4.000 euroko (BEZa kanpo) saria irabaziko dute. Hala, sarien zenbatekoa 19.360 eurokoa (BEZa barne) izango da guztira.

Proiektuak jarraituko dituen pausoak

Zigoitiko Udalak eskuartean duen egutegiaren arabera, 2020 urte amaierako edota 2021aren hasierarako, udalak proiektuaren behin betiko idazketa izan dezake, berehala, obren lizitazio prozesuari hasiera emanez. Exekuzio lanak 2021.urtearen amaieran hasiko lirateke eta 2023ko urte hasierarako bukatu.

Gogoratu beharra dago, Udalak proiektu hau gauzatzeko dirulaguntza eskatu duela Arabako Foru Aldundiko Obra eta Zerbitzuen sailak deitutako 2020-2021 Foru Planaren biartez..

Era berean, azpimarratu beharra dago baita, Udalak aurreikusten duen obren kronograman eragina izan dezaketen kanpoko faktoreak egon daitezkeela, Uraren Euskal Agentziaren bitartez eskatu behar den Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren baimena erdiesteko tramitazioa honen adibide izan daiteke, egin beharreko obra eta jarduerak burutzeko oniritzia izateko.

Informazio gehiagorako:

Iñigo Aranbarri

688 621 860

aranbarri@sormen.eus

www.zigoitia.eus

945 464 041 - Bengolarra kalea, 1. Ondategi



@ZigoitikoUdala